

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko maiatzaren 29ko erabakiaren laburpena, zeinen bitartez alarma egoeraren deklarazioak Vitoria-Gasteizko udalerrian eragindako enpresei 2020. urtean laguntza ekonomikoak emateko aparteko deialdia onetsi baitzen

BDNS(Identif.): 508535

Dirulaguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> eta Vitoria-Gasteizko Udalaren web gunean <http://www.vitoria-gasteiz.org> kontsulta daitezke.

Lehena. Onuradunak

Edozein forma juridiko duten enpresa pribatuak, helbidea Vitoria-Gasteizen dutenak, hamar soldatapeko baino gutxiago dutenak, urteko balantze orokorra bi milioi eurotik beherakoa dutenak, eta ekonomia jardueren gaineko zergan 2015eko urtarrilaren 1etik 2020ko martxoaren 14ra arte alta emanda egon direnak, haien jarduera nagusia ez bada martxoaren 10eko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikuluan jasotakoetako bat maiatzaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren artikuluko bakarreko 2. apartatuak aldatu zuen hori, eta diruz lagunduko diren gastuak (1.000,00 euro gutxienez) Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatuta dagoen zentro batean zuzenean egin badira; ekonomia jardueren gaineko zergaren 64, 65, 66, 67 eta 972 epigrafeetakoak badira, gastuak 500,00 euro izango dira.

Enpresaren jarduera nagusia ekonomia jardueren gaineko zergaren 64, 65, 66, 67 eta 972 epigrafeetan aipatutakoetako bat bada, enpresak ez du bete behar 2015eko urtarrilaren 1ean alta emanda egotearen betekizuna.

Bigarrena. Xedea

COVID-19aren izurria dela eta deklaraturako alarma egoerak Vitoria-Gasteizko udalerrian eragindako enpresetan jarduera ekonomikoa sustatzeko ematekoak diren laguntzak arautzea. Hori dela eta 2020ko martxoaren 15etik ekainaren 30era arte egin behar izan diren inbertsioak lagunduko dira diruz: norbera babesteko ekipamenduak, prebentzio eta babes-materialak eta higiene sanitarioko materialak erostea; instalazioak desinfektatzea; ekipoak eta makineria abiarazi eta martxan jartzea; eraldaketa digitala, eta COVID-19a dela eta eragindako aholkularitza eta kontsultoria-gastuak.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

Hirugarrena. Oinarriak

2018ko abenduaren 28an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko otsailaren 13ko ALHAO, 147. zk.), eta 2020ko maiatzaren 29an, berriz, laguntza-ildo berri baten berriarazko oinarriak: "Alarma egoeraren deklarazioak Vitoria-Gasteizko udalerrian eragindako enpresei 2020. urtean laguntza ekonomikoak ematea".

Udalaren web gunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza deialdi honek 750.000,00 euroko zuzkidura du, 2020rako onetsitako udal aurrekontuko 0823.4331.489.00 partidaren kontura "COVID-19 laguntzak" Bi jarduera-ildotan banatzen da:

1. Txikizkako merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzu pertsonalen sektorea (ekonomia jardueren gaineko zergaren 64, 65, 66, 67 eta 972 epigrafeak): 450.000,00 euroko zuzkidura.

2. Gainerako sektoreak: 300.000,00 euroko zuzkidura.

Enpresa eta urte bakoitzeko laguntza-dosier bakarra tramitatuko da, eta gehieneko zenbatekoa 1.000,00 eurokoa izango da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2020ko ekainaren 15etik 30era.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a

Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI